

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO HIGIENE- ETA HIDRATAZIO-TEKNIKAK	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF0088		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Aurpegiko eta gorputzeko higiea eta hidratazioa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aurpegiko eta gorputzeko higiea eta hidratazio-zainketa estetikoetarako baliabideen azterketa eta aukeraketa.	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0355_2: AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO HIGIENE- ETA HIDRATAZIO-TEKNIKA ESTETIKOAK APLIKATZEA gaitasun-ataleko LB5, LB6, LB7 eta LB8 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurpegiko eta gorputzeko higiea-tekniak segurtasun- eta higiea-kondizioetan aplikatzea, bezeroarekin eskaera teknikoak eta baldintzak kontuan hartuta.

EI1.1 Aurpegiko eta gorputzeko higiea- eta hidratazio-tekniak aplikatzeko behar diren aparatuak, produktuak, tresnak eta materialak aukeratzea eta prestatzea, behar diren higiea-, desinfekzio- eta esterilizazio-tekniak aplikatuz.

EI1.2 Bezeroa egin behar zaizkion tekniketarako jarrera anatomiko egokian jartzea eta bezeroa babestea.

EI1.3 Begietako, ezpainetako, aurpegiko eta bularraldeko makillajea kentzeko teknika eta larruazala suspertzeko teknika berariazko produktu, material eta tresnekin egitea.

EI1.4 Larruazala sakon garbitu behar bada, aurrez makillajea kenduta, pilatutako zikinkeria mugitzea errazten duten produktuak eta teknika aplikatzea —adibidez, esfoliazio mekanikoa, berariazko masajea eta bero lehorra edo hezea—, kontuan izanda larruazalaren egoera eta tresnak, aparatuak eta produktuak erabiltzeko jarraibideak.

EI1.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, zikinkeria honela kentzea:

- Presio digitala eginez, behar diren higiea- eta babes-neurriak aplikatuz: maskara eta eskularruak asepsia-baldintzetan.
- Zaldarrak ateratzeko erabiliz.
- Bentosak erabiliz.
- Euskarri blaituak erabiliz.
- Hainbat metodo konbinatuz.

EI1.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, inkrustazioak kentzeko teknika korrante galvanikoz aplikatzea, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak, kontraindikazioak eta programatzeko jarraibideak aintzat hartuz.

EI1.7 Sakoneko garbiketako tratamendua amaitzea kosmetiko lasaigarriak eta hidratatzaileak aplikatuz eta, hala behar izanez gero, bezeroaren beharretara egokitutako eguneko makillajea aplikatuz.

EI1.8 Etxean egiteko zainketa estetikoaren jarraibideei buruzko aholkuak ematea bezeroari.

A2: Aurpegiko eta gorputzeko hidratazio-tekniak segurtasun- eta higiea-kondizioetan aplikatzea, bezeroarekin eskaera teknikoak eta baldintzak kontuan hartuta.

EI2.1 Hidratazioaren alterazioen diagnostikoa egitea metodo egokiak aplikatuz: behaketa, haztapena, hidratazio-mailaren neurgailua.

EI2.2 Larruazala hidratatzeko tratamendurako berariazko kosmetikoak eta aparatuak aukeratzea.

EI2.3 Larruazala hidratatzeko erabiltzen diren ekipo elektrikoaren parametroak programatzea, kontuan hartuta larruazalaren egoera eta ezaugarriak eta tratamenduaren helburua.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, teknika estetikoak —masajea, oklusioa eta beste— egiten dituzten hidratazio-tratamenduak aplikatzea.

EI2.5 Larruazala hidratatzeko higiea-tratamenduekin lotutako berariazko aparatuak eta produktuak aplikatzea, larruazalaren egoera eta beharrak kontuan hartuta.

A3: Aurpegiko eta gorputzeko higiea- eta hidratazio-teknietan adierazitako masaje estetikoak aplikatzea.

EI3.1 Masaje estetiko teknika aplikatzea kontraindikazten dituzten egoerak identifikatzea.

EI3.2 Masaje estetikoak aplikatutako diren zona anatomikoen ezaugarriak azaltzea: larruazala, muskuluak, inertzioa eta baskularizazioa.

EI3.3 Masaje estetikoaren maniobrak aukeratzea, larruazal-mota eta larruazalaren egoera eta lortu nahi diren efektuak kontuan hartuta.

EI3.4 Maniobrak tratatu beharreko zonetara egokituz egitea masaje estetikoak.

EI3.5 Maniobren segida, erritmoa eta intentsitatea lortu nahi den efektu-motara egokitzea.

A4: Lortutako emaitzak eta bezeroaren gogobetetze-maila baloratzea, egon litezkeen desbideratzeentzat neurri zuzentzaileak proposatuz.

EI4.1 Higiene- eta hidratazio-zerbitzuaren kalitatea egiaztatzeko ebaluatu behar diren alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

EI4.2 Zerbitzugintza-prozesu osoaren zein lortutako emaitzaren kalitatea ebaluatzeko aukera ematen duten irizpideak identifikatzea eta azaltzea.

EI4.3 Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-teknika estetikoak aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko teknikak aplikatzea.
- Desbideratzeak zer fasetan gertatu diren identifikatzea.
- Lortutako emaitzak lortu nahi ziren emaitzetara egokitzeko neurriak proposatzea.

EI4.4 Zerbitzua ematean gertatzen diren desbideratzeak baloratzeko aukera ematen duten galdera tipoak egitea.

Edukiak

1. Aurpegiko eta gorputzeko larruazalaren higiena eta hidratazioa

- Larruazalaren higiena.
- Aurpegiko eta gorputzeko higiena-tratamendu motak.
- Azaleko garbiketa eta larruazaleko makillajea kentzea. Egiteko teknikak.
- Larruazalaren sakoneko garbiketa. Tratamenduaren faseak. Erabiltzen diren tresnak eta materialak.
- Bezeroa prestatzea eta fitxa teknikoak egitea.
- Berariazko kosmetologia aukeratzeko eta aplikatzeko irizpideak.
- Tratamenduetako fase bakoitzean erabiltzen diren aparatuak aukeratzeko, programatzeko eta aplikatzeko irizpideak.
- Erabiltzen diren eskuzko teknikak.
- Sakoneko garbiketa egiteko berariazko teknikak, larruazal-motaren arabera: Normala. Atipikoa. Deshidratatua. Koipea. Akneikoa. Sentikorra. Zahartua.
- Larruazalaren hidratazioa:
 - eskuzko teknikak;
 - materialak eta baliabide teknikoak;
 - kosmetiko espezifikoak (aukeratzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko irizpideak);
 - aparatuak (aukeratzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko irizpideak).

2. Eskuzko teknikak:

- Higiene- eta hidratazio-prozesuetan aplikatutako aurpegiko eta gorputzeko masaje estetikoak. Masajearen buruzko sarrera. Definizioa eta jatorria.
- Masajearen efektu onuragarriak:
 - Larruazalean. Muskuluetan.
 - Odol- eta linfa-zirkulazioan.
 - Nerbio-bukaeretan.
- Erabilerak eta kontraindikazioak.
- Aurpegiko masajea.
- Aurpegiko eta lepoko azaleko muskuluetan.
- Aurpegiko masaje estetikoko berariazko maniobrak: sailkapena eta egiteko ordena.
- Masajea, larruazal motaren arabera.
- Efektuak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- Higiene- eta hidratazio-prozesuei aplikatutako gorputzeko masajea.
- Gorputzeko masaje estetikoko maniobrak: sailkapena eta egiteko ordena.
- Efektuak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.

3. Higiene- eta hidratazio-prozesuen kalitate-kontrola:

- Kalitatearen kontzeptua. Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-prozesuen kalitatea definitzeko parametroak.
- Kalitatea aurpegiko eta gorputzeko higiene-zerbitzuen aplikazioan eta salmentan. Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
- Higieneko eta hidratazioko zainketa estetikoetan izandako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erllo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0087 gainditua izan behar du: Aurpegiko eta gorputzeko higijene- eta hidratazio-zainketa estetikoetarako baliabideen azterketa eta aukeraketa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Higijene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.